

BERORREN ERREGE GORENTASUN
ASTURIASKO ETA VIANAKO PRINTZEAK
KULTURAREN VIANAKO PRINTZEA 2012 SARIA
ANTONIO LOPEZ GARCIA JAUNARI EMATEKO
EKITALDIAN ESKAINITAKO HITZAK

Leireko Monasterioa
2012ko ekainak 6

San Salvadorreko milurteko monasterioaren horma sendoak duela mende asko Erresuma zahar honetan bizitutakoen ilusio handiko ahaleginarekin eta sinesmen sakonarekin altxatu ziren, eta berriro ere bertan hartu gaituzte kulturaren jardunaldi berezi hau egiteko. Bertan nahasten dira tradizioa eta abangoardia, generazioz generazio landutako historia eta nortasunarekiko sustraitzea eta Nafarroako gizon-emakumeak bereizten dituen espiritu ekintzaile eta dinamikoa.

Orain duela bostehun urte, segidako gorabehera konplexu eta iraunkorren ondoren eta nobleen artean boterea eskuratzeko borroken testuinguruan, erresumen arteko itun eta gatazken artean eta Europako borroka geoestrategiko eta erlijiosoetan, 1512. urtean hasi zen prozesua, eta handik urte batzuetara amaitu zen Nafarroa behin betiko sartuta Monarkia Hispaniarraren lurraldeetan, foru eta Erresuma izaerari eutsiaz. Modu horretan, Nafarroak antzinatek beti izandako xede hispaniarrarekin jarraitu zuen. Beraz, garaia da lurralde honek Espainian sartzearen alde eta Espainia osoa elkartzearen alde izandako bokazio historiko sakona aintzatesteko. Proiektu kolektiboen bidez, berezitasun eta nortasun handiarekin, beti egon da irimotasunez konprometitua.

Egungo Foru Komunitatearen ezkutua apaintzen duten kate harroek, tradizioak kontatzen duenaren arabera, duela zortziehun urte Espainiako Erresuma Zaharretan gertatutako pasarte arrunt bat aipatzen dute. Nafarroa beste hispaniar erresuma batzuen jatorrian egon zen, eta, duela ia bost mende, behin betiko elkartu zitzairen espainiar nazioaren batasuna lantzeko eta Historia eraikitzen jarraitzeko. Urteurren hau ospatzean, omendu nahi ditugu Nafarroaren alde eta gure herrialde osoaren aurrerapen, elkartasun eta batasunaren alde beti borrokatutako eta lan egindako nafarrak.

Hori dela-eta, Printzesak eta nik barru-barruan sentitzen dugu lurralde honek izandako errealitatea, gertutik jarraitzeaz gain, aurrerapenak eta lorpenak egiaztatzen ditugu, nafarrek zailtasunak saihesteko egiten dituzten ahalegin handiak eta etorkizun hobearen alde egindako apustu erabakigarria, Espainiako proiektu komunetan modu arduratsuan eta irekian parte hartzen baitu beti.

Leireko eskenatoki hain berezi honetan, Erdi Aroko jendea liluratu zuten arkitektura eta eskulturaren adierazpen artistikoak ikusten ditugu, partekaturiko kultura osatu zuten sentimenduak eta irakaskuntzak, historiak eta legendak transmititzen baitituzte. Gaur egun, irudiez eta sinbolismoez jositako bobeda, arkupe edo kapitel hauek berdin-berdin miresten gaituzte, eta artea ondare unibertsala eta iraunkorra dela egiaztatzeko aukera ematen digute. Arte horrek gutaz hitz egiten du, giza izaera gehiago ezagutzera hurbiltzen gaitu, garai eta herrialde bakoitzari duten onena ematearekin batera.

Nire uste osoarekin, hausnarpen horiek bat datoz Kulturaren Vianako Printzea Saria gure garaiko artista handi bati eman berri diogun zeremonia honen zentzuarekin. Artista horren izena Espainiako sormen artistikoaren egungo sinbologia da, eta haren lanak eskaintzen ditu garai historiko bikainenetako espainiar pintura bereizi duten balio sakonak eta munduan gehien ezagutzen diren espainiar autoreenak, berrituta eta eguneratuta.

Antonio Lópezek ez ditu soilik objektuak, pertsonak edo paisaiak margotzen. Teknika oso zaindua erabiliaz, pintzelen bidez lortzen du modu gogoetatsuan eta lasaian errealitatea azaltzea eta gauzen mamia erakustea, emozioa, sentimendurik sakonenak transmititzea, horrekin artistaren profil ospetsua erakustearekin batera. “Lan bat —hark dio— inoiz ez da amaitzen, baizik eta dituen aukeren mugara iristen da”. Horixe da artista berezi baten filosofia, bikain landua garai guztietako artea ezagututa eta ulertuta; bide pertsonala aurkitu eta bide horri eutsi dio, hamarkadaz hamarkada, ilusio eta ahalegin berarekin.

Printzesarekin batera, azpimarratu nahi nuke gure onarpenik handiena Antonio Lopezentzat, haren gaztaroko hasierako lanarengatik, liriko eta irudimen handikoarengatik, nahiz haren mihise eta eskultura berrienen handitasun eta mezu sakonarengatik. Halaber, pertsona moduan haren maila aintzatetsi nahi genuke, hurbiltasuna eta afektua transmititzen baitu duen jakinduriaren eta sormenaren kalitatearen bidez. Onarpen honetan, ezin ditugu ahantzi hark gehien maite dituen pertsonak, Mari emaztea, alabak eta bilobak, Antonio Lopezen bizitzaren eta obraren funtsezko babesak dira-eta.

Ondorioz, Printzesak eta nik bihotzez zoriondu nahi dugu Antonio Lopez jauna, Nafarroak eskaintzen dion sari hau, Kulturaren Vianako Printzea, sormen-lanean aurrera jarraitzeko bizigarri bat izatea opatzearekin batera. Lopez jaunaren obra gogoangarria izango da, ezbairik gabe, bizi garen garaiko artea eta errealitatea ordezkatzeko duen adierazpen gisa.

Jakin badakigu handitzen doala artistaren eta Nafarroaren artean azken urteetan eraturako estimu eta mirespen erlazioa. Lurralde honetan urtero ematen dituen pintura-tailerrak lotura hori indartzen laguntzen dute, eta fruitu asko eta baliotsuak eman ditzake, Komunitate honetan kulturaren inguruko kezkek ugari izateagatik eta ekimen artistikoak aurrera ateratzeagatik.

Hain zuzen ere, ideiak eta ekimenak, jarduera berrien gaineko proiektuak, bultzatu behar ditugu denon artean, honako hauek bezalako garai zailetan. Nahiz eta egun bakoitzeko errealitatea gogorra izan, nahiz eta min eman lanik aurkitzen ez duten pertsonak ugari izateak, gure aukeretan konfiantza izan behar dugu. Uste sendoa izan behar dugu gure gizarteak sortzeko duen indarrean, talentuan, ahaleginean eta ekimenean. Gainera, generazio gazteenak, bereziki, ondoen prestatuta daude aurrean ditugun erronkei aurre egiteko.

Egunero egin behar dugun ahalegin horretan, zailtasunak gainditzeko indarrean, denok elkartu behar dugu. Garai hauetan, desadostasunak eta norberekeriak alde batera utzi behar dira. Erantzukizunaren, sakrifizioen eta jarrera eskuzabalen garaiak dira, elkarrekin eta itxaropenaz bidea egin ahal izateko, jartzen ditugun helburuak lortzeaz konbentziturak eta, berandu baino lehen, bizi dugun egoera hobetzeko asmoarekin.

Eskerrik asko, Lehendakari andrea, agintariok, jaun-andreok, beti eskaintzen diguzuen harrera adeitsuarengatik. Guk ere, era horretan, konpromiso berezia sentitzen dugu Espainiako funtsezko zatia den Nafarroako Foru Komunitateko gogo bizi eta proiektuekiko.

Zorionak sarituari eta eskerrik asko guztioi!